

Estatu espainol eta frantsesak, Euskal Herrian, kalean nahiz espetxeetan, demokraziaren arauak hankaz gora jarriz, salbuespen egoera iraunkorra inposatu dute.

Euskal Preso Politikoen kopurua azken 30 urteotako inoizko altuena da: 750 euskal herritar daude Espainia eta Frantziako espetxeetan sakabanatuta. Euskal preso politikoak Euskal Herritik isolatu nahi dituzte, honela beraien etsipena eragin eta suntsitzeko helburuarekin.

Sakabanaketa politika martxan jarri zutenetik 20 urte pasatu direnean, indarrean dago oraindik eta dagoeneko 38 hildako utzi dizkigu. Presoei ez ezik, senide eta lagunei ere zuzenean eragiten dion zigorra da dispertsioa. Kilometro kopuruaz haratago, etengabeko odoluste ekonomikoa eta eskubideen murrizketa dakar berarekin sakabanaketak.

Patxi Aristi herritarrak, dagoeneko 17 urte daramatza espetxean. Dispertsio politikaren ondorioz, urte guzti hauetan, Fleury, Carabanchel, Topas, Valdemoro, Caceres I eta Martutene espetxeak ezagutu ditu. Egun, Topas-en ( Salamaca) dute preso, herritik 470 Km-tara. Isolamendu moduluan dago eta 10 laguneko bisita zerrenda murriztua ezarri diote.

Sakabanaketa eta oinarrizko eskubideen murrizketaz gain, azken urtean presoen aurkako neurri eta urrats berriak ematen ari dira Frantzia eta Espainiako gobernuak:

-Auzitegi gorenaren 197/2006 dotrina aplikatzearen ondorioz, 24 preso politikori bizi arteko espetxe zigorra ezarri diote. Era berean, 170 preso politiko dira, 3/4ak beteta eta kalean behar luketen arren, baldintzapeneko askatasuna ukatzen zaienak.

-Gaixotasun larriak dituzten presoak heriotza zigorrera kondenatu dituzte. Egoeran honetan, 10 dira 92. Artikulua ukaturik, espetxean dituzten presoak.

Norabide honetan, Zumaiako udalari ondorengo eskakizun eta konpromisoak bere gain har ditzan eskatzen dugu:

- Frantzia eta Espainiak euskal presoei aplikatzen dieten eta oinarrizko eskubideak urratzen dituen politika penitentziarioa amaitu dadin eskatzen dugu.
- Gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten presoak berehala eta baldintzarik gabe kaleratzea eskatzen dugu.
- Bizarteko espetxe zigorra indargabetu dadin eskatzen dugu; zigorra beteta duten eta kondizionalean dauden presoak berehala kaleratuz.
- Isolamendu eta bakartasunaren aurka Euskal Preso Politikoei Euskal Herrian egoteko eskubidea dute. Norabide honetan, Patxi Aristi zumaiarra, dagozkion eskubideen jabe, Euskal Herriratua izan dadin eskatzen dugu. Era berean, udal honek Patxi Aristi preso politikoaren egoerari jarraipen zuzena emango dio.
- Euskal presoak euskal herrira aldarriarekin bat eginez, banderola udal balkoian ezartzea eskatzen dugu.
- Udalari, mozio honen edukiak bando eta komunikabideen bitartez herritarrei jakinarazteko eta Espainiako gobernuari helarazteko konpromisoa har dezan eskatzen diogu.